

Gasteizen, Arabako Diputazio Jauregiko areto nagusian 1983.eko apirilaren 27an, arratsaldeko lau t'erdietan, ospatu du Euskaltzaindiak Gamiz-en liburua aurkeztuz bere batzar irekia. Mahai buruan L. Villasante, Emilio Guevara diputatu nagusia, P. Martin eta J. M. Satrustegi eseri dira. Bertan zegoen Patxi Ormazabal Batzarre Nagusien lehendakaria ere. Batzarrera etorri dira: P. Altuna, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre eta J. San Martin euskaltzainak. Odon Apraiz euskaltzain ohorezkoa. L. Akesolo, J. A. Arana, I. Baztarrika, P. Goenaga, J.L. Lizundia, J. Oleaga, J. A. Retolaza, M. Ruiz Urrestarazu, P. Uribarren eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

X. Diharce, J. Haritschelhar, P. Larzabal eta L. Mitxelenak ezin etorria adierazi dute.

Euskaltzain buruaren hitzekin hasi da batzarrea. Orintxe dela hamar urte Sabandon idazleari egindako omenaldian hartu zela, esan du, Juan Bautista Gamizen lanak argitaratzeko xedea. Arabako hizkeraren lekuko baliotsua gertatu zaigu J. Goikoetxeak prestatu duen bilduma. Erdaraz eta euskaraz datoz XVIII. mendeko idazle honen bertsoak. Diputazioari eskerrak eman dizkio.

Goizeko bilkuraren berri

Gasteizko ordezkarietan **Euskera** eta argitalpenen batzordea bildu dela goizean, aditzera eman du idazkariak. Aurkeztutako gaien artean, datorren **Euskeraren** zenbakian sartuko diren lanak banatu dira. Aldizkari honen gerra aurreko aleak birrargitaratzeko lana aurrera doa, eta 1936. urtera arteko bilduma Bilbon ekainean aurkezteko moduan egongo dela, esan da. Falta diren batzar-agiri eta Euskaltzaindiari dagozkion berri jakingarri batzurekin gehituko da gerra ondoko lehen alea. Birrargitalpen honen asmoa 1968. urteko alearekin burutuko da oraikoz. Toribio Etxeberria zenaren Eibarko hiztegiari ale-berezi mordo atera eta Eibarren salgai ezartzeko gogoia agertu du San Martin jaunak.

Azkue-ren **Euskalzale** hiru zenbakiak Euskaltzaindiko argitalpenen katalogoan sartzea ongi ikusi dute batzartuek. Euskaltzaindiaren historia laburra bost hizkuntzetan —euskara, gaztelera, frantses, ingeles eta aleman— aurrera doa, eta Bilboko egoitzarekin batera heda litekeela ikusi da. Lafitte jaunaren omenezko IKER-2 prest dago eta lehen aleak ikusi ahal izan dituzte batzarkideek. JAGON-1 bertsolariari buruz egitekoa dena ere aurrera doa. Hizlarien lanak aldatuak dira paperera, eta laster igorriko zaizkie heuron egileei.

Merkatalgo Izendegiaren milaren bat ale-berezi ateratzea ordezkarietzetan saltzeko, beharrezkoa ikusten da. Liburu azoka guzitara joateak sortzen dituen eragozpenak aipatu dira gero.

Txostenak

“Juan Goikoetxea Maiza eta Gamizen argitalpenak” izenburuarekin agertu du E. Knörr jaunak bere txostena. Garrantzitsu ikusten du maitasunez eta jakinduriaz hornitutako liburu txukuna. Bi mende t’erdiko epe luzea ixten duela Gamizentzat, Arabako Diputazioaren laguntzari esker J. Goikoetxeak burututako lan txalogarriak. Lehen mailako olerkaria ez bazen ere, hizkuntzalari eta irakurleentzat jakingarri dira bertso hauek. Nola aurkituak diren esana zuen aurretik, baina Loiolako gutundegira nola joanak diren ez jakin.

J. Goikoetxea Maiza gaixorik dago eta etortzerik ez du izan. Patxi Altunak irakurri du, beraz, biltzailearen aginduz txostena. Gamizen berri ematerakoan, Iruñeko egoera aipatu du, bere sorterriko mintzaira Nafarroako esaera eta hiztegiarekin kutsaturik dagoela adierazteko. Larramendiren eragina ageri omen da erdarazko bertsoetatik euskarazkoetara jotze honetan, eta Lope de Vega-ren kutsua ere aipatu du. Jesulagunen erbesteratzeak Italiara bota zuen arabarra eta han hil zen.

L. Mitxelenak bere hitzaldia ematerik ez du izan. Azken orduan, eztarria hartua zuela adierazi du. Bere txostena idazkariak irakurri du. Gamiz eta idazlearen garaia aztertu ditu ohi duen ohar eta argibideak emanez.

Urgazleen agiriak

Euskaltzain urgazle berriei izendapen txartelak banatu zaizkie gero. Hegoaldeko jaun-andere hauek etorri dira: Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Rikardo Badiola, Ana Maria Etxaide, Joxe M.^a Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Jon Kortazar, M.^a Pilar Lasarte, Anjel Lertxundi, Karlos Otegi, Jose M.^a Sanchez Carrion, Arantza Urretavizcaya, Jose M.^a Velez Mendizabal, Nikolas Barrenetxea “aita Julen Yurre”, eta Mikel Zalbide.

Emilio Guevara eta Luis Villasantek eman dizkiete agiriak. Euskararen alde egindako lanaren aitormena dela, esan die euskaltzainburuak; eta euskaltzain-aulki baino merezimendudun gehiago badelako, ez dela erraza aukera egitea.

San Prudentziotan Euskaltzaindia Araban bildu delako poza agertu du Arabako Diputatu Nagusiak. Kimu berriekin gazteturik ikusten duela Euskaltzaindiaren zuhaitza, eta iragan historia ala hizkuntza aztertuz nahi lukeela Arabarentzat euskara birreskuratzera iritsi. Gamizen hitz hauek errepikatu ditu gero: “Agindu, babazorroak beteko du eta”.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JOSE M.^a SATRUSTEGI